

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

144/2019 Foru Agindua, uztailaren 4koa. Baztertzea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2016rako enplegu publikoaren eskaintzaren barruan funtzionario gisa (administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, teknikari laguntzaileen klasea, 42131 deialdia, sukalde laguntzailea) sartzeko deialdiko izangaia

2017ko maiatzaren 17an argitara eman zen ALHAOn (55 zenbakia) maiatzaren 9ko 82/2017 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baitziren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzuean karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaprobak arautuko dituzten oinarri orokorrak. Hautaproba horiek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2016ko enplegu publikoaren eskaintza onetsi zuen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 29ko 814/2016 Erabakiak aurreikusituen. Era berean, ekainaren 1eko 121/2017 Foru Aginduak onespena eman zien Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen karrerako funtzionario gisa (administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, teknikari laguntzaileen klasea, sukalde laguntzailea) sartzeko hautaketa prozesua arautu behar duten oinarri espezifikoak.

Maiatzaren 9ko 82/2017 Foru Agindu horrek 76 oinarrian xedatzen duenez hautapen prozesuko edozein unetan epaimahaiak deialdian eskatzen diren betekizunak egiaztatzeko eskatu ahal izango du, eta horretarako 20 egun balioduneko epealdia ezarriko du. Hautagaietako batak betetzen ez baditu edo epealdiren barruan egiaztatzen ez baditu, epaimahaiak entzunaldia emango dio interesdunari eta gero prozesutik baztertzeko proposamena egingo dio Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatuari, baztertzeko proposamenaren arrazoiak azalduta.

Sukalde laguntzailearen deialdiko epaimahai kalifikatzaileak, aipatutako 76 oinarrian adierazitakoa betez, lehenengo ariketa gainditu zuten izangaiei eskatu zien ekainaren 1eko 121/2017 Foru Aginduaren bidez onetsitako oinarri espezifikoaren 2. oinarrian adierazitako titulua (Lanbide Heziketako lehen mailako ostalaritza eta turismo arloa, sukaldaritza espezialitateko titulua, edo horietako baten baliokidea) egiazta zitzatela 20 egun naturaleko epean.

Epe hori amaitu ondoren, eta interesdunek dagokion dokumentazioa aurkeztuta, epaimahaiak erabaki zuen entzunaldi epe bat ematea bere ustez aipatutako titulazioa behar bezala aurkeztu ez zuten pertsonen, egoki iriztitako agiriak eta justifikazioak aurkez zitzaten.

Entzunaldi epea amaituta eta aurkeztutako alegazioak aztertutik, epaimahaiak, 2019ko uztailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen diputatu honi proposatzea, honako pertsona hauek baztertzea ekainaren 1eko 121/2017 Foru Aginduaren bidez onetsitako oinarri espezifikoaren 2. oinarrian zehazten den titulazioa ez izateagatik (Lanbide Heziketako lehen mailako ostalaritza eta turismo arloa, sukaldaritza espezialitateko titulua, edo horietako baten baliokidea):

NAN zenbaki hauen jabeak: 07.979.253 R, 15.373.732 A, 16.262.049 Z, 16.268.551 F, 16.278.776 C, 16.279.794 A, 16.284.966 T, 16.288.798 Z, 16.288.509 R, 16.289.896 P, 16.292.005 R, 16.296.727 P, 16.297.727 L, 16.300.499 P, 18.594.453 B, 30.670.943 Y, 30.676.937 C, 30.689.860 V, 30.690.132 J, 44.671.857 S, 44.672.064 S, 44.676.622 L, 44.683.716 Y, 72.725.495 R, 72.725.688 X, 72.734.719 W, 72.738.409 N eta 72.756.009 V.

Hori guztia kontuan hartuta eta apirilaren 3ko Diputatuen Kontseiluaren 25/2012 Foru Dekretuak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren egitura eta funtzionamendu arautegia onartu zuenak, 11.b artikuluan aurreikusitakoari jarraituz eta maiatzaren 9ko 82/2017 Foru Aginduaren 7.6 oinarrian xedatutakoara betez,

XEDATZEN DUT

LEHENENGOA. Baztertzea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2016rako enplegu publikoaren eskaintzaren barruan funtzionario gisa (administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, teknikari laguntzaileen klasea, 42131 deialdia, sukalde laguntzailea) sartzeko deialdiko honako izangai hauek, ekainaren 1eko 121/2017 Foru Aginduaren bidez onetsitako oinarri espezifikoaren 2. oinarrian zehazten den titulazioa ez izateagatik (Lanbide Heziketako lehen mailako ostalaritza eta turismo arloa, sukaldaritza espezialitateko titulua, edo horietako baten baliokidea):

NAN zenbaki hauen jabeai: 07979253 R, 15373732 A, 16262049 Z, 16268551 F, 16278776 C, 16279794 A, 16284966T, 16288798 Z, 16288509 R, 16289896 P, 16292005 R, 16296727 P, 16297727 L, 16300499 P, 18594453 B, 30670943, 30676937 C, 30689860 V, 30690132 J, 44671857 S, 44672064 S, 44676622 L, 44683716Y, 72725495 R, 72725688 X, 72734719 W, 72738409 N eta 72756009 V.

BIGARRENA. "Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa jarri ahal izango da, argitaratu ondorengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtoa, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan -urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikularekin loturik- xedatutakoaren arabera."

Gasteiz, 2019ko uztailaren 4a

Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua
M. ANTONIA OLABARRIETA IBARRONDO